

LEZO / Blog berria, Twitter kontua eta liburu elektronikoak irakurtzeko gailua, Lezoko liburutegian

Lezoko Udal Liburutegiak jakinarazi duenez, blog berria dauka: "Bertan, liburutegian egiten diren jarduerak dute oihartzuna, baita eskaintzen diren zerbitzuek, iristen diren nobedadeek eta bestelako kontuek ere". Bertako kideek zehaztu dutenez, bloga elebiduna da, "eta liburutegiak udalaren web orri ofizialean daukan atalaren osagarri da."

Halaber, liburutegiak Twitter-eko kontu berria dauka: @liburutegiaLezo.

Liburu elektronikoak irakurtzeko gailuak

Bestalde, orain dela gutxi liburutegiak liburu elektronikoen irakurgailuak eskuratu dituela jakinarazi dute. Oraingoz Libbuk markako lau gailuak direla zehaztu dute, "baina bakoitzak ehunka liburu elektroniko dituela bere baitan: euskarazkoak, gaztelaniazkoak, ingelesezkoak eta frantsesezkoak". Guztiak dira egile eskubiderik gabekoak.

Irakurgailuak maileguan eraman daitezke dagoeneko, "paperezko liburu eta gainerako materialak bezala, baina epe luzeagorako: hiru astetarako, hain zuzen ere".